

## TELEFONO MUGIKORREN ETA ERLOJU ADIMENDUEN ERABILERA ARAUDIA

Gizarte digitalizatuaren testuinguruan, ikastola honek iritzi dio pertsonen arteko aurrez aurreko harremanak ikasleen ongizate emozionalerako garrantzitsuak direla. Eta aukera horren alde eginez, Internetera sarbidea, deiak egin eta jaso, mezuak idatzi eta jaso, eta irudiak-argazkiak egitea ahalbidetzen duten gailu pertsonalen inguruko araudia onartu du. Izan ere, ikasleen arteko harremanak sustatu nahi ditugu batetik, eta ezberdintasunak, bazterkeriak, jazarpen egoerak eta irudiaren erabilera desegokiak ekidin bestetik, ikastetxea leku segurua, atsegina eta abegikorra izan dadin nahi dugulako.

Dokumentu honetan zehar hainbatetan agertuko diren zenbait kontzepturen argitzea:

**Eskola-jarduna:** eskola ordutegia, orduz kanpoko azterketa, errefortzu ordu, jolas-orduak, ikastolak eskainitako zerbitzuak, jantokia, garraioa,... eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko aldiak barne hartzen dituen denbora tartea. Baita irteera, ibilaldi eta txangoak ere.

**Gailu pertsonala:** Internetera sarbidea, deiak egin eta jaso, mezuak idatzi eta jaso, eta irudiak-argazkiak egitea ahalbidetzen duen gailu pertsonalak (smartphone, smartwatch, tableta, ordenagailu, bideokontsola eramangarri, argazki kamera digital,...)

**Chromebooka:** eskola-lanetarako erabiliko den gailu digitala, araudi propioa izango duena.

Hona hemen gailu pertsonal hauei buruzko araudia:

1.- Ikasleek ezingo dute erabili gailu pertsonalik eskola-jardunean eskola lanetarako ez bada. Kontuan izan familia eta seme-alaben arteko harremana edozein unetan gauzatu daitekeela **ikastolarekin kontaktuan jarrita**.

2.- Gurasoek edo legezko tutoreek noizbait ikasleak ikastolara mugikorra ezinbestean ekarri behar duela erabakiz gero, tutoreari jakinarazi beharko diote. Kasu honetan, LHn eta DBHko 1. zikloan soilik, lehenengo orduko irakasleari eman beharko dio ikasleak mugikorra eta azkenengo orduan bueltatuko zaio. DBHko 2.zikloko ikasleen kasuan, beraiek arduratuko dira gailua itzalita armairuan gordetzeaz.

Ikastolak ez du bere gain hartuko baimenik gabe ekarritako gailuari gerta dakiokena ikastolaren zainzapean ez badago.

3.- Ikasleren batek gailu pertsonal bat baimenik gabe ekarri eta agerian izango balu, kendu egingo zaio eta honako prozedura jarraituko dugu ikastolan:

- **1. ALDIA:**
  - 16:30ean eman.
  - Ikaslea tutoretzara joan dadila bila.
  - 16:30ean kentzen bazaio, hurrengo eguneko 16:30ean bueltatu.
  
- **2. ALDIA:**
  - 3 egunez kendu gailu pertsonala.
  - Idazkaritzan utzi.
  - Gurasoek joan beharko dute bila idazkaritzara.
  
- **3. ALDIA**
  - Astebetez kendu gailu pertsonala.
  - Idazkaritzan utzi.
  - Gurasoek joan beharko dute bila zuzendaritzara.

4.- Arau hauste errepikakor baten aurrean, ikastetxea eta guraso edo legezko arduraduna elkartu eta **“Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzko, abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak”** ezarritakoren arabera jokatu da.

5.- Irakasleek, eredu izanik, telefono mugikorrek soinurik gabe izango dute, ikasleen aurrean ez dute erabiliko eta gailua ez dute agerian izango. Beti ere, eskola-lanetarako beharrezkoa ez bada.

#### **FAMILIEI ESKAERAK:**

- Ikastolatik ikasleek telefono mugikorrek ikastolara ez ekartzeko eskaera luzatzen dizuegu.
- Araudi hau onartzen, errespetatzen eta betetzen laguntzea zuen seme-alabekin lanketa eginez.
- Helduak eredu izanik, ikastolako eremuan telefono eta bestelako gailuen erabilera arduratsua egitea, eskola-eremua telefono mugikorrik gabeko arnas-gune bihurtzen lagunduz.

## 6.- Chromebook gailuaren erabilera arauak:

- *Chromebook* gailua, ikasketetarako lan tresna bat da eta hori da emango zaion erabilera. Ez dugu, jolasteko, sare sozialetan sartzeko edo beste helburu batekin erabiliko.
- *Chromebook* gailuaren erabilera eskatzen duten arloetan, batez ere digitalki lantzen direnetan, ikasleak gailua prest izango du klase hasierarako eta itzali eta gorde egingo du klasea amaitzerakoan. Ondorengo saioan erabili behar bada (arlotan digitalak), tapa jaitsita mahai gainean edukiko da.
- Saioetan ez bada ordenagailurik erabili behar, dagokion apalean egon behar da.
- Atsedenaldiaren aurretik, ordenagailua BETI dagokion apalean gorde beharko da.
- ADI! Behar ez den lekuan dauden ordenagailuak edo atsedenaldi aurretik bere lekuan gordetzen ez direnak, irakasleak hartuko ditu eta bera ordenagailua bueltatzera etorri arte (egunaren amaieran) itxaron beharko du ikasleak gailu barik.
- Atsedendietan eta beste espazio batzuetara goazenean (gorputz hezkuntza, plastika-gela, teknologia-gela, aukerakoa...) ez dugu ordenagailua gelatik aterako arloko lanak eskatzen ez badu. Dagokion apalean utziko dugu.

## 7.- *Chromebook* gailuari erabilera desegokia (jolasak, sare sozialak...) ematen dion ikasleari, gailua kenduko zaio.

- **1. ALDIA:**
  - Eskola-jardunaren bukaeran itzuliko zaio.
  - Ikaslea tutoretzara joan beharko da gailuaren bila.
  - Eskola-jardunaren bukaeran kentzen bazaio, hurrengo eguneko eskola-jardunaren bukaeran bueltatuko zaio.
- **2. ALDIA:**
  - 3 eskola-egunez kenduko zaio ordenagailua.
  - Ikaslea tutoretzara joan beharko da gailuaren bila.
- **3. ALDIA:**
  - 5 eskola-egunez kenduko zaio ordenagailua.
  - Ikaslea tutoretzara joan beharko da bila.

Kasu hauetan, ikasleak IKASGAI DIGITALETAN, klaseak liburuarekin jarraitu beharko ditu. Ezinezkoa bada, Chromebook gailua ordu horretarako emango zaio, eta saioaren ostean berriz itzuli beharko du tutoretzara. Egun horretako etxerako lanak ere paperean egin beharko ditu.

8.- Arau hauste errepikakor baten aurrean, ikastetxea eta guraso edo legezko arduraduna elkartu eta **“Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko, abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak”** ezarritakoren arabera jokatu da.

9.- Beste norbaiten ordenagailua baimenik gabe erabiltzea gertakari larria da, non delitu edota falta administratiboa izan daitekeelarik. Kasu honetan Elkarbizitza taldetik kudeatuko da egoera.